

## ITSASOKO UDALA

(GIPUZKOA)

## 2018-03-17ko HERRI BATZARREKO AKTA

2018ko martxoaren 17an, larunbata, 19:00etan, Itsasoko Elizako korupean aurtengo 1. Herri Batzarra burutu da, honako aztergaiak izan dituelarik:

- **Urriko batzarraz geroztik Udalak emandako pausoak**

Urriko batzarraz geroztik egindako tramite batzuk zerrendatu eta gogorarazi dira:

- Itsasoko artxiboa eratzeko jasotako diru-laguntza (1.965etik 2.016 bitarteko dokumentazioan, Itsasori dagokionaren kopiak egiteko)
- Goiko Ostatua: egituraren analisia
- Udalaren hornikuntza: internet, telefonoa, berogailua
- Udal langileen kontratazioa: Administraria, Garbitzailea, Gizarte Langilea
- Leader eta Goimenera diru-laguntza eskaerak. Alegiako lanak.
- Konektibitatea
- Sasietako bilerak
- Goierriko Hedabideak: Hitza eta Goiberri

- **Entitateen Erregistroan dugun auzia eta epaitegiko tramitea**

Gaur egungo egoera nola dagoen aipatu da:

- Bilboko Epaitegiko auzia 2017ko abenduaren 14n ebatzi zela baina sententzia oraindik erredaktatu gabe dagoela.
- Madrilgo auzia uda aurretik ateratzea espero dela.
- Bi auzi hauetako gastuak ordaintzeko Aldunditik 15.000€-ko diru-laguntza jasoa dugula (Gastu orokorra 20.000€-koa izango da).

- **Alegitik Ormaiztegirako irteeraren proiektu zirriborroa**

Irizar-eko errotondarainoko oinezkoen bidea nola geratuko litzatekeen adierazi da:

- marra horia, espaloia izango da (Agerreberriraino luzatzea eskatu dena, eta gerora, ziurrenik, bide gorriaren trazatua izango dena).
- Aroztegi parean zebrabidea.
- Itsasotik Ormaiztegirantz joateko, irteera karrila mantentzea

Segidan, Eliza parean eta frontoirako sarreran egingo diren hobekuntzak aipatu dira:

- Apaizetxe ondoan, eta bidearen norabide berean, errepidetik 1.5m-ra, loreontzi handiak jarriko dira.
- Elizatariko sarreran, oinezkoentzako pasabidea loreontzi batekin mugatuko da, eta jarraian auto batentzat lekua utziko da.
- Leku berean errepidea zeharkatzen duen zebrabidea marraztuko da, Diputaziokoekin egon ondoren.
- Iturri inguruan dagoen harrizko zorua konpondu eta losa tarteetan hormigoia botako da.



- **EIT (Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa)**

Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa zertan datzan, norentzat dagoen bideratua, nork egiten duen, txostenak zer jasotzen duen eta jarraitu beharreko prozedura zein den aipatu da.

Hala ere, oraindik azken dekretua ez dago argitaratuta eta informazio zehatzagoa dagoenean herritarrei jakinaraziko zaiela adierazi da.

● **Zuntz optikoa**

Dagoeneko Movistarrekin kontratua egin duten etxe batzuetan instalatu da zuntz optikoa, baina beste kasu batzuetan arazoak izan dira. Eskaera egin zuten etxebizitza guztietara zuntz optikoa eramango zuela ziurtatu ziguten Movistarreko arduradunek, hauek 300 metro baino urrutiago egonda ere. Kontratatze arazoak izan dituztenek Udalean honen berri eman dezakete, herritarren beharrak bateratuz, bideratzen lagundu ahal izateko.

● **Zabor kudeaketa**


Hainbat datu eman dira:

- etxeko eta merkataritzako hondakinak Itsason
- gaikako bilketa herriz herri (Goierriin)
- sortzen den errefuxa kopurua (herriz herri eta batz bestekoa)
- birziklatzeko gaiak berezituta eta bereizi gabe ontziratzearen kostua



Itsasoren datuak okerrenetakoak direnez, Sasietaoekin bilerak egiten ari gara birziklatze datuak hobetu ahal izateko. Datuak nola hobetu neurriak hartuz joateko, gaiari gertutik jarraipena egingo zaiola aipatzen da.

● **AHT Iruña H Alternatiba**

Ofizialki inongo jakinarazpenik iritsi ez zaigun arren, AHT sarearen trazatua Itsasotik pasatzearen aukera mahai gainean dagoela esaten da (H alternatiba).



Oraindik Eusko Jaurlaritzak ez du erabakirik hartu baina alegazioak egiteko epea martxoaren 16an amaitzen zen eta Itsasoko Udalak, herritarrekin bi bilera egin ondoren, honako hau bidali duela adierazten da:



- **Hurrengo auzolana**

Apirilaren 14n egitea proposatu da eta honako hauek izan dira lan-proposamenak:

- Baserri bideetako seinaletan Itsasoko ezaugarria duten zeramikazko logoak jarri.
- Hilerriko, Itsusturriko eta eliza ondoko barandillak pintatu.
- Atinzabal pareko herri bide ertzean hesia egin
- Zuntz optikoaren parean dauden zuhaitz adarrak kendu
- Sakristi azpiko lokala garbitu
- ...

- **Beste ekimen batzuen aurreikuspena**

- Mandubiko bidea: Pinudia atera ondoren, bidea oso egoera txarrean utzi dutela komentatzen da. Fidantza itzulketa egin baino lehen, bidea bere onera ekartzea eskatuko zaie, errekerimendu bitartez.

- Fuskara ikastaroa: Datorren irailetik aurrera euskara ikasteko aukera luzatuko zaie herritarrei.
- Ariketa psiko-fisikoa: Adinekoentzat antolatu nahi den ekimena aipatu da.
- Subiltzaileen formazioa: Prebentzio mailan, eta suterren bat sortuz gero, nola jokatu jakiteko formazio saio bat antolatu nahi da.
- Lehen sorospen ikastaroa: Aurrekoa bezala, larrialdi baten aurrean nola jokatu jakiteko ikastaroa antolatu nahi da.

● **2017ko aurrekontuen balantzea eta 2018ko aurrekontuen aurreikuspena**

Gerakina 2016	166.806,58		
Sarrerak 2017	318.673,57	Gastuak 2017	166.648,30 arruntak
			235.480,62 inbertsioak
Gerakina 2017	82.485,75		
Sarrerak 2018	313.716,16	Gastuak 2018	216.063,40 arruntak
			142.199,17 inbertsio onartuak
2018rako geratzen dena: 37.939,34			
2018n aurreikusten diren dirulaguntzak: 15.000 (Aldundia) ( Ingreso a egina dago)			
42.000 (Alegi parkea Leader)			
7.000 (Goimen)			
<b>2018rako geratzen dena guztira (Alegiko parkea, Udaletxeko sarrera, Ariolako eta Goitiko bidea eginda): 101.939,34</b>			

● **Inbertsioen kapitulua**

Inbertsioak nora bidera daitezkeen jakiteko proposamen hauek landu dira herritarren artean. Hona eskuineko zutabea atera dena:

EREMUAK DIRULAGUNTZAK	2017	2018	2019, 2020...
BIDEAK KONPONDU, MANTENDU, SAREA OSATU...	ARIOLA ( 330 m) EZTALAGOITI ESKOILERA 47.093€tatik 30.000€ jaso zen <b>17.000€</b>	ARIOLA ( 430m) GOITI (Iburberri eta Iturrita parekoa) 51.400€tatik 30.000 € aurreikus liteke <b>21.400€</b>	- Mandubiko bidean: erretanak hormigoitzea bidea bera hormigoitzea - Goititik Kaminora bide sarea zabaltzen joan (herriari beste irteera bat) - Oinezko bidea Ezkiora (San Lorentzotik aurrera) - Alegiko badenak, Seus artean apartaderoa
GOIMEN	Alegiko parkerako eskatu zen baina Leader-era aurkezteko esan zitzaigun	ibilbideen proiektua, S Lorentzoko mahaia, Iturria eta ganadu-aska 13.700€tatik 7.000€ aurreikus liteke <b>6.700€</b>	- Herriko lokalen erabilerarako ditugun beharrak aztertu eta estudio bat egin (optimizazioa): Udaletxea, Goiko Ostatua, Alegiko elkarte - Teilatua eta ganbarako obra egin - Itsasoko parkea berri eta irisgarritasuna bermatu
LEADER	-Alegiko parkea onartua 99.155€tatik 42.000€ jasoko dira <b>57.155€</b> -Udaletxeko sarrera <b>63.979€</b>	-Udaletxeko sarrera 90.600€ <b>26.689€</b> -Alegiko Elkarteko goiko solairua egokitzea (proiektua eta aurrekontua oraindik egin gabe)	- Itsusturrira argiteria eta ahal bada, espaloia - Itsason komun publikoak, zabor ontziak, kartelak (garbi mantendu) - Kizkitzako pagadia zaharberritu